

2.2 GAIAREN LANKETA

> Herriak dauka



- Zerbitzuak

• Zerbitzuen dominoa

Helburuak

- Herri batek izan ditzakeen zerbitzuak euskaraz esaten ikastea.
- Ondo pasatuz hiztegia ikastea.

Prozedura

- Lehenik eta behin, argazki-albumeko irudiak erabiliz herrietan egon daitezkeen zerbitzuak erakutsi.
- Jarraian, umeei galdetu bizi diren herrietan dauden zerbitzuen inguruan. Denen artean zerrenda egin arbelean. Nahi izanez gero, euren jatorriko herrietako zerbitzuengatik galdetu eta arbeleko zerrendan gehitu.
- Bi domino-jolas daude eta bakoitzak bere kolorea dauka: berdea eta laranja. Domino bakoitzean zazpi zerbitzu lantzen dira.
- Jolas egiteko hainbat aukera daude:
 - Bi talde egin eta talde bakoitza domino jolas batekin aritzea.
 - Talde handian lehenengo joko bat egin eta gero bestea egitea.
- Jolas berdean "udaletxea-udaletxea" fitxa duen umea hasiko da; jolas laranja, berriz, "antzokia-antzokia" fitxa duena.
- Ume bakoitzari 5 fitxa eman; beste guztiak ahuspez geratuko dira.
- Hasi denaren eskuman dagoen umeak ikusi beharko du ipintzeko moduko fitxarik daukan. Baldin badauka, zer daukan esan eta ipini egingo du. Ez badauka, erdiko multzotik bat hartuko du eta, hori ere ezin badu ipini, hurrengoaren txanda izango da.
- Eskuartean dituen fitxa guztiak mahai gainean jartzea lortzen duenak irabaziko du.

Oharrak

- Jolasa behar beste aldiz erabili.
- Argazki-albumeko irudiak erabiliz, hiztegi-koadernoko zerbitzuen irudiak bete.